

22 zenbakia
2017ko ekaina

bai

ziurtagiridunen
aldizkaria

A woman with short dark hair, wearing a white tank top with a colorful graphic, is sitting at a wooden desk. She is smiling and looking down at a pen in her right hand, which is resting on a document. Her left hand is also on the desk. The background is a solid red wall.

Garbiñe Aranburu

LABeko idazkari nagusia

A man with glasses, wearing a dark suit, white shirt, and red tie, is smiling. He is standing in front of a blue wall with large white 3D letters that spell "mutua". An orange horizontal bar is positioned below the letters.

mutua

Ignacio Lekunberri

Mutualiako zuzendari orokorra

Rober Gutiérrez
[zuzendaria]
@robergutierrez



Euskara: baliatu beharreko aldagaia

Ekimen enpresarial bat garatzen ari den lagun bat beste proiektu batean murgiltzekotan da. Esperientzia duen arren, azken hilabeteotan hainbat formazio saio jaso du zenbait aholkularitza eta erakunderen aldetik, negozioa sortzeko garaian kontuan izan beharreko aholkuak eta gomendioak jaso dituelarik. Enpresa sortzeko garatu beharreko ideia, ekiteko eta sortzeko gaitasunak, proiektuaren izaera, merkatuaren azterketa, bideragarritasuna, legezko baldintzak... Kudeaketa arrakastatsurako oinarritzko printzipioak ere aztertu ditu, antolakuntzari, estrategiari eta plangintzari dagozkionak, komunikaziokoak eta pertsonen garapenari buruzkoak. Zerrenda luze horretan hizkuntzek zein leku duten edo izan beharko luketen galdetu nion, horietan guztietan hizkuntzek nabarmen eragiten baitute eta, horrenbestez, kudeatu beharrekoak iruditzen baitzaizkit.

Hizkuntzez ez da apenas hitz egiten, nahiz eta modu ageriagoko batez agertu beharko liratekeen ekimen enpresarialak kudeatzen dituzten pertsonen artean. Hizkuntzen (pluralen) eta euskararen (singularrean) aldagaiari erreparatu behar diote, ezinbestez, ekimen enpresarialak abiatzeko ausardia duten ekintzaileek eta enpresak sustatzen, berritzen eta hobetzen dihardutenek, bai eta administrazioek eta langileok zein kontsumitzaileok ere. Era guztietako enpresen balio-katean, ekoizten den produktuari edo eskaintzen den zerbitzuari balorea eransten baitiote hizkuntzek. Horregatik, euskara ere bada entitateen etorkizuneko balioa handitzen lagunduko duen inbertsioa.

Era guztietako enpresetan, eta horien harreman komertzialetan, hizkuntza-aniztasuna kudeatu beharreko aberastasuna

da. Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea mesedegarria da merkatu eta bezero berriak irabazteko garaian, bezeroak asetzeko eta fidelizatzeko. Erosleak nahia- go izaten du bere hizkuntzan hitz egin eta erosi; horregatik, produktu eta zerbitzuak lehiakorrak eta kalitatekoak izango badira, bere hizkuntzan eskaini behar zaizkio bezeroari. Hizkuntzek enpresen hazkunde ekonomikoan eragiten dute modu nabarmenean, etekinak areagotuz. Halaber, enpresa gehienetan, oro har, ez da zalantzan jartzen kanpoko merkatuetan aritzeko, tokian tokiko hizkuntza(k) erabiltzea komeni dela, baina gurean ez da askotan hala egiten, nahiz eta euskara gertutasunaren eta konfiantzaren adierazgarria den. Euskaraz komunikatzeko gaitasunak bide eta aukera berriak zabaltzen ditu eta nabarmendu behar da euskarak lurralde honetako entitateak ezaugarritzen dituela, balio eta printzipio batzuk erantsiz.

Barrura begira ere, onuragarriak dira euskararen ezagutza eta erabilera: enpresa, saltoki eta era guztietako entitateen barne kohesioan, lan taldearen motibazioan, funtzionamendu egokian, pertsonen formazioan eta inplikazioan zuzeneko eragina baitu euskarak. Talde sendoagoak, inplikatuagoak eta konprometituagoak sustatzen ditu, gure erakundeak indartsuago egiten ditu, eta merkatuan (tokikoan zein globalean) hobeto posizionatzen laguntzen du. Euskara gertutasunaren, konpromisoaren, inplikazioaren, konfiantzaren eta bizikidetzaren adierazgarri da.

Oraina eta etorkizuna euskaraz datoz. Euskararen balioez jabetzea eta horiek baliatzea dagokigu, tokiko merkatuaren zein globalaren abangoardian kokatzeko.

Garikoitz Goikoetxea 03

Aukerak sortzen

Ignacio Lekunberri 04

Mutualiaiko zuzendari orokorra

Iñaki Maiztegui 07

Serbitzuko Euskara Planaren koordinatzailea

Aenkomer sariak 08

Errota Hortz klinika
Elkar

Lansarean 10

Abian da **Lansarean.eus** lan-atari berriua

Garbiñe Aranburu 12

LABeko idazkari nagusia

Expresarean Foroa 15

Raul Garcia - ULMA Taldeko lehendakaria

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkartea
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain
t. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0559255041

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 902430026

Rogelia de Alvaro Elkarteen Etxea A.1.1.
Panama, z/g - 01012, Gasteiz t. 945215196

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa
31014 Iruñea t. 902430026

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:
Bai Euskarari Elkartea eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez

Argazkiak:
Bai Euskarari Elkartea eta Arteman Komunikazioa.

Inprimatzailea: Leitzaran

Banaketa: Bai Euskarari Elkartea

Lege gordailua: SS-497-2010

baieuskarari.eus





Garikoitz
Goikoetxea

@ggoikoetxea

BERRIAko kazetaria
Euskara irabazteko bidean
liburuaren egilea

Aukerak sortzen

Hamazazpi urte bete ditu hileon Bai Euskarari ziurtagiriak. Adin nagusitasunera iristear da, hortaz. Hemezortzi urte aurki, euskalgintzan aldaketa hotsak gero eta gehiago entzuten diren honetan. Garai aproposa da egindakoari erreparatzeko, lortutakoak goraipatzeko eta aukera berriei begira jartzeko.

Nabarmena da indargune handiak sortu dituela ziurtagiriak. Batetik, mila entitateri baino gehiagori modua jarri die euskara txertatzeko beren zerbitzu eskaintzan, horren ziurtagiriarekin. Bestetik, herritarren ikuspegitik, euskarazko zerbitzua ziurtatu die bezeroei, eta euskaraz lan egitea langileei. Euskarazko eremuak identifikatzen ditu ziurtagiriak: badirela erakusten du, badela bermatzen du.

Indargune hori, baina, mugatua da: borondatearen arabera. Establezimendu bakoitzaren esku dago eskatu edo ez. Ez dago araurik zerbitzua euskaraz ere ematera behartzen dituenik. Eta, betebeharrak ez dagoenez, bazter utz daitekeen gai bihurtzen da. Argigarri da, adibidez, 2009tik behera ari dela ziurtagiria duten eragileen kopurua. Krisiaren ondorio. Araurik ezean, ezinbestekoa da ziurtagiriren bat duten establezimenduei aitortza egitea arlo publikoan: Gasteizen egindako urratsaren gisakoak eta handiagoak —ostalaritzako eta merkataritzako udal laguntzetan puntuen % 5 eman dituzte euskarazko ziurtagirien arabera—. Helduleku bat hor du ziurtagiriak: izan dezala babesa esparru publikoan, har dezatela aintzat.

Euskaraz dakiten herritarrak gero eta gehiago dira: euskaraz zerbitzu emateko gai diren langileak gero eta gehiago dira. Hala ere, horrek berak, besterik gabe, nekez ekarriko du euskararen erabilera areagotzea edo zerbitzua bermatzea: hizkuntza irizpideak behar dira. Bezeroen artean ere gero eta gehiago dira euskaraz dakitenak, eta bultzatu behar dira zerbitzua euskaraz eska dezaten. Hizkuntza ohituretan eragin, azkenaldian maiz aipatzen denez. *Bai Euskarari* itsasgarriak egoki dira horretarako.

Jauziak emateaz hitz egiten da, sinergiak bilatzeaz. Bai Euskarari-ren hausnarketa estrategikoak dioen eran, ezinbestekoak dira «elkarrekiko aitortza, osagarritasuna eta homologazioa». Eta euskara ziurtagirietan bada distortsio bat Bai Euskarari-ren eta Bikainen artean —orain hamar urte sortu zuen Jaurlaritzak Bikain—. Ez dira igualak, baina badituzte antzekotasunak. «Aitortza, osagarritasuna eta homologazioa». Ezinbestekoa da gutxieneko sinergia batzuk bilatzea. Garai aproposa da egitekoei erreparatzeko, lorpenak irabazten hasteko eta aukera berriak sortzeko.

Ignacio Lekunberri

Mutualiako zuzendari orokorra

“Euskaraz lan egiten dugunok enpresen aitortza handiagoa jaso beharko genuke”

Arabako ‘La Previsora’, Bizkaiko ‘Mutua Vizcaya Industrial’ eta Gipuzkoako ‘Pakea’ dira Mutualiaren sustarrak. 2006an bat egin zuten eta Mutualia sortu zen. Gaur egun, mutua erreferentea da Euskal Autonomia Erkidegoan eta % 43ko merkatu kuota dauka. Ignacio Lekunberri bilbotarra da zuzendari orokorra, 30 urte daramatza Mutualian, kargu ezberdinetan. Badira bi urte itsasontzia eramateko ardura hartu zuela.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lehenengo mutua zarete, % 43ko merkatu kuotarekin. Azken urteetan asko hazi zarete, ezta?

Bai. Baina, haztea ez da gure helburua. Gure helburuak dira, zerbitzuen kalitatea hobetzea, eraginkorragoak izatea, bezeroen gogobetetze maila handitzea, gure pertsonen asebetetzea handitzea eta gure marka hobetzea.

Mutuen sektorean, ordea, helburu konplikatuak dira horiek, bereziki markaren ospearen hobekuntzarena.

Mutuen sektorea konplexua da. Estatuan 20 mutuek elkarrekin egin beharko genuke lan mutuen irudia hobetzeko.

Oro har, mutuek ez dute erreputazio onik. Kaleko iritzitik aldentuta Mutualiaren bezeroek, ordea, bestelako iritzia dute. Hau da, Mutualiaren bezeroen % 95 oso pozik daude. Edozelan ere, ez da ahaztu behar gure zerbitzua istripua izan duen langileak jasotzen duela, eta egoera hori ez da samurra izaten. Oro har, hiritarrek zerbitzu ona jasotzen badute, ez dute txalotzen; zerbitzu txarra jasoz gero, ordea, edozeinek zabalitzen du iritzia negatiboa.

Zein da Mutualiak eskaintzen duen zerbitzu mota?

Guk bi bezero mota ditugu, pertsonak eta enpresak. Langileak zuzenean gure zerbitzua jasotzen du eta enpresak

asegurua egiten du. Eskaintzari dagokionez, bi prestazio mota eskaintzen ditugu. Bat ekonomikoa eta, bestea, osasun arreta. Langile batek istripu bat izaten badu eta bajan baldin badago, ordaindu egiten diogu baja hori eta, gainera, asistentzia sanitarioa ematen diogu. Altan egonda ere, osasun arreta bermatzen zaio. Euskal Autonomia Erkidegoan 18 zentro ditugu zerbitzu hori eskaintzeko.

Euskararen arloan ere, dinamikoak zarete. Estrategia aktiboak bideratu dituzue eta, besteak beste, Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu duzue.

2011n egindako Plan estrategikoan ikusi genuen euskararen presentzia txikia



TALLERES
MITXELENA, S.COOP.

Ezlaio poligonoa, 21^a Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



zela eta neurriak hartu behar genituela. Gure langileen arteko eta bezeroarekiko harremana euskaldunagoa izatea nahi genuen. Guk mutua euskalduna izan nahi genuen eta handik aurrera bitartekoak ipintzen ari gara hori lortzeko. Euskarak bereiztu egin behar gaitu. Hala, orain dela urte batzuk diagnostikoa egin genuen eta ondoren etorri ziren politika linguistikoaren definizioa, euskara plana, euskara taldearen sorrera... Hori horrela izanik, euskara taldeak proposatu zion zuzendaritzari euskararen arloko politika eta estrategiak. Eta hori guztia praktikara eramateko, dinamizatzailearen lanpostua ere sortu genuen, adibidez.

Noiztik ari zarete euskararen sustapenean lanean?

Enpresaren lehenengo Euskara Plana 2012-2014an jarri zen abian, eta biga-

rrena, une honetan indarrean dagoena, 2015-2020 garaia dagokio. Une honetan gure lankideak formatzen ari gara enpresan bertan eta lan orduetan. Ikastaroetan ditugun langile kopurua igotzen joan da, 47rekin hasi ginen eta, gaur egun, 76 daude prestakuntza jasotzen. Gainera, enpresa-itunetan ere, euskara ikasteko baliabideak eskaintzen dira. Gure taldeko norbaitek euskara ikasi nahi duela esaten badigu, eta Mutualian bertan ez badauka aukerarik egiteko (ordutegia dela, maila dela...), euskaltegiko matrikularen % 100 ordaintzen zaio. Barnetegietara joateko aukera ere eskaintzen die Mutualiak bere langileei.

Euskararen ikasketa prozesu horretan zuzendaritzak eredu izan nahi du, ezta?

Halaxe da, bai. Zuzendaritza taldeko

Euskarak gure egunerokotasunean hurbiltasuna, gardentasuna, profesionaltasuna, abangoardismoa eta taldea ematen dizkigu

erdia baino gehiago euskaldunak edo euskalduntzeko prozesuan ari dira (orotara 21 pertsona gara).

Egunerokotasunean partekatzen dituzuen dokumentu eta gainerakoak ere euskaraz dituzue.

la gure dokumentazio guztia, baliabide informatikoak, materialak... euskaraz eta gaztelaniaz ditugu. Edozelan ere, guztia euskaraz izateko prozesua luzea izango da, dokumentu eta txosten asko baititugu eta ohitura aldaketa

eragin behar delako. Lan horretan Bai Euskarari Ziurtagiriaren 'Bidean' agiria jaso dugu eta lagungarria izango da guretzat.

Oraindik, bigarren euskara planaren erdian gaude eta helburua da bai kanpo harremanak zein barne harremanak euskalduntzea. Hizkuntza eskubideei erantzun nahi diegu; euskaraz lan egin nahi duenak euskaraz lan egiteko aukera izan behar duelako eta euskaraz zerbitzua jaso nahi duenak eskubidea duelako.

Euskara balio bat da baina badituzue beste batzuk.

Hurbiltasuna, gardentasuna, profesio-naltasuna, abangoardismoa, eraginkortasuna eta taldea... horiek dira gure balioak eta euskarak gure zerbitzu zein egunerokotasunean hori guztia ematen du. Mutualiako pertsona guztiek erabaki dute horiek izango direla gure balioak. Guztion artean erabaki dugu. 600 pertsona gara EAEn eta lan handia egiten ari gara gure marka eta balioen arloan.

Euskararen arloan proiektu bateratuetan ere parte-hartzen duzue.

Euskararen arloan ahalik eta gehien batzen saiatzen gara. Osakidetzarekin elkarlanean ari gara. Identifikazio sistemarekin hasi ginen eta ondoren sinatutako akordioari esker, baliabideak tartekatzen ari gara. *Jendaurrean erabili* proiektuan ere parte hartzen dugu. Era berean, "Osasuna eta hizkuntza" izeneko EHUren Udako ikastaroan parte hartuko dugu. Eusko Jaurlaritzarekin eta Osakidetzarekin batera plazaratu genuen fisioterapeuten hiztegia euskaraz. Ikusten duzunez, badira euskara



sustatzeko hartzen ari garen neurriak eta sustatzen ditugun proiektuak.

Komunikazioaren arloan ere euskaraz erabat integratuta duzue.

Komunikazioaren arloan hedatzen ditugun eduki guztien % 80 euskaraz argitaratzen ditugu. Guk, normalean, EAEn zein Madrilen erantzun eta komunikatu beharra daukagu eta badaude eduki batzuk soilik gazteleraz sortzen direnak, Madrilerara begira. Hona bideratuta dauden guztiak euskaraz izaten dira. Sare sozialetan ere bi kontu ditugu, euskaraz eta gaztelaniaz, eta aldizkaria ere badugu, elebiduna.

Ahalegin horrek guztiak gizarte zein enpresen aitortza izango du, ezta?

Ez pentsa. Penagarria da merkatuak ahalegin hau ez saritzea. Euskaraz lan egiten dugunok hemengo enpresen aitortza handiagoa jaso beharko genuke, baina batzuek ez digute aukerarik ematen, nahiz eta bere politikan euskara garrantzitsua izan. Elkarri lagundu beharko genioke eta euskara oinarritzko irizpide gisa erabili beharko litzateke.

Etorkizunera begira, zer?

Hizkuntza ohiturak aldatzea da gehien kostatuko zaiguna. Euskara arlo pribatutik arlo publikora eraman behar dugu. Hemendik aurrera euskara gaitasuna lortzeko prestakuntza guztiz lotuta egongo da gure laneko zereginekin. Horrekin bermatu nahi dugu normaltasun osoz Mutuاليا euskaraz lan egin ahal izatea.

arteman
KOMUNIKAZIOAREN ARTISAUAK

KOMUNIKAZIO, MARKETIN,
DISEINU ETA BIDEOGINTZAKO
ZURE AGENTZIA GARA.

bai kulturak
arteman.eus
arteman@arteman.eus
943 08 10 20

Instagram, Twitter, Facebook icons

Iñaki Maiztegi Serbitzuko Euskara Planaren koordinatzailea

“Serbitzuk Bai esan dio euskarari. Bai zerbitzua euskaraz eskaintzeari”

2011n euskara modu integralean txertatzen hasi ziren Serbitzun, EMUN aholkularitzarekin garaturiko euskara planaren bidez. Bai Euskarari Ziurtagiria dute eta argi dute euskara dela euren bereizgarria, gaurko eta etorkizuneko balio erantsia. Iñaki Maiztegiarekin, Euskara Planaren koordintzailearekin izan gara, prozesua eta emaitzak gertutik ezagutzeko.

Euskara izan da hasieratik ardatz nagusi Serbitzun. Zergatik eta nondik hasi zineten?

Euskal Herrian eta bereziki Gipuzkoan kokatutako zerbitzu enpresa bat gara eta euskara gure aktibitatearen balio bat gehiago da. Gainera, bezeroa administrazio publikoa da, eta azken hartzaileak Gipuzkoako herritarrek, gehiengo euskaldunak.

Lehenengo urratsa euskararen egoeraren diagnostiko bat egitea izan zen. Horretarako hainbat neurketa egin ziren: errotulazioa, webgunea, barne dokumentazioa eta komunikazioak. Hobetu beharreko puntuak identifikatu eta ekin-tza plan bat diseinatu genuen.

Euskara planaren oinarriak “erabilera, ezagutza eta motibazioa” direla dio-ue?

Hainbat urte pasa eta gero, erabilerrari lotutako ekintza “formalak” egiteaz gain, presentzia gutxien zuten arloak lantzen hasi ginen. Horretarako, lehenengo urratsa langileen konplizitatea lortzea izan zen, eta motibazioan eragiten saiatu ginen. Gainera, euskara ikastera edo hobetzerari animatzen ziren langileei euskaltetikiko matrikula diruz laguntzen hasi ginen eta horrek euskararen aldeko giroan eragin positiboa izan zuen.

Zenbat eta gehiago ezagutu, gehiago maitatzen da hizkuntza, eta gehiago erabiltzen da, eta alderantziz. Serbitzun ere azken helburua erabilera da noski, baina ezagutza eta motibazioa lantzea ere beharrezkoak dira euskara lan hizkuntza izateko.



Nola egokitu prozesua langilearen egoera eta beharren arabera?

Batetik, euskalduntze prozesuetan dauden langileak daude. Horien kasuan enpresa arduratzen da bakoitzaren formazio beharra kudeatzeaz. Ikasteko dituzten baliabideen inguruko informazioa eskaintzeaz gain, euskaltetikiko matrikula ordaintzen zaie.

Bestalde, badaude euskaltzegira joaten ez diren langileak, baina enpresan euskararen ezagutza lantzeko ekimenetan parte hartzen dutenak.

2013. urtean Bai Euskarari Ziurtagiriaren “Zerbitzua Euskaraz” maila eskuratu zenuten. Zertan lagundu dizue Bai Euskarari Elkarteak bidelagun bezala izateak?

Euskara Planarekin hasteko borondatea enpresan bertan sortu bazen ere, beti behar dira erronka edo helmuga berriak aurrera egiteko, Bai Euskarari ziurtagiria tresna garrantzitsua izan da hobekuntzarako eta errekonozimendu gisa. Tek-

nikariarekin egindako elkarriketetan jarraipen zehatza egin izan diegu lorpenei dagokienez, eta helburu berriak jartzen ere lagundu izan digute. Akulu lan polita egiten dute gure konfort egoeratik aterarazi eta urte urte garatzen jarrai dezagun.

Aitzindariak zarete Azkoitian euskara plana duzuenon artean.

Agian gure bereizgarria gure aktibitatea bera da. Bezero dugun administrazio publikoak barnerratuta du euskararen erabilera eta gure enpresarekin duten komunikazioetan presentzia handia du euskarak. Bestalde, herritarrekin zuzeneko harremana izaten dugu sarri eta gu aritzen garen herrietako asko oso euskaldunak dira. Horrenbestez beharrezkoa dugu horri modu egokian erantzutea eta gure zerbitzua euskaraz bermatzea.

Prozesu honetan, oztopo nabarmenik?

Oztopoetako bat hobetzekoak genituela ez jakitea izan zen. Uste genuen erakundean euskaraz lan egiten genuela, baina neurketak eta diagnostikoa egin genituenean konturatu ginen ez zela horrela. Hori izan zen gainditu genuen lehen oztopoa, egoeraren kontzientzia hartzea.

Beste bat euskaldundu nahi ez duten pertsonen prozesua ez onartzea da, eta hau bereziki zaindu beharreko puntua da. Horregatik, hasieratik sentsibilizazio lan handia egin genuen, prozesua pertsonalki eta profesionalki garatzeko aukera bat zela nabarmentzeko.

AENKOMER -Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresariak- elkartek banatzen dituen sariak jaso dituzte Errota Hortz Klinikak eta Elkar San Prudentziok. Merkataritzan eta Zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzeagatik jaso dute saria. Bi enpresatako ordezkariekin izan gara.

Ane Agirregomezkorta ELKAR San Prudentzioko arduraduna

“Merkatari eta ostalari askok oso urruti sentitzen dute euskara, arrotza da beraientzat”



Markinarra jaiotzez, Gasteizen bizi da duela 27 urtetik. Hamar urte daramatza ELKAR San Prudentzioko arduradun gisa.

Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako enpresarioen (AENKOMER) aitortza jaso berri duzue, zein balorzio egiten duzue?

Euskara balioan jartzeagatik aitortza jasotzea positiboa bada ere, asko dago egiteko. Tamalez, ez da ohikoa Gasteizen komertzioek euskararen arloan egiten duten ahalegina saritzea. Oraindik orain gasteiztar merkatarari eta ostalari

askok oso urruti sentitzen dute euskara, arrotza da beraientzat. AENKOMER-en barruan, esaterako, soilik gaztelaniaz bizi diren asko daude, eta horiei guztiei esan beharko genieke euskarak presente egon behar duela hiriko merkataritza eta zerbitzuetan.

Nolakoa izan da euskararen bilakera azken urteotan Gasteizko merkataritza eta zerbitzuetan?

Onera joan da baina oraindik ere badira ‘*háblame en cristiano*’ esaten dutenak. 1989an etorri nintzen Gasteizera eta ordutik hona ezagutza asko hazi da, eta helduen euskalduntzean ere aurrera pausuak eman dira. Zorionez, gaur egun ez da arrotza Gasteizen euskaraz entzutea.

Auzo berriak sortu dira; Lakua, Salburua, Zabalgana... familia euskaldun gehiago dago auzo horietan eta euskararen aldeko olatua etengabea da.

Euskararen erabilera sustatzeagatik jaso duzue AENKOMER saria. Zeintzuk dira lan on horren oinarriak?

Sorreratik ELKAREk euskara eta euskal kultura sustatzea izan du helburu. Fundazio bat ere badauka, euskal kultura bultzatzeko, kulturaren sorkuntzan euskara tresna izan dadin eta hizkuntza bera garatzeko. Gasteizen, Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez, euskara lantokira eraman nahi izan dugu eta bidean gaudela, izan ere lankide guztiak ez dira euskaldunak.

Zer egiten duzue euskara bultzatzeko?

Gure langileei klaseak dohainik jasotzeko aukera eskaintzen diegu. Izan ere, gure asmoa da ahalik eta lankide gehienek zerbitzua euskaraz eskaintzea. Gaur egun, Gasteizko San Prudentzio kaleko dendan lanean hasi nahi duenak euskaraz jakin behar du, bezeroak hala eskatzen baitu.

Eta euskarak zer eskaintzen dizue?

Eroso bizitzeko eta lan egiteko modua eta tresna da euskara. Gaur egun gure dendan oinarritzko baldintza da lehenengo hitza euskaraz esatea. Eta konturatzen zara zenbait lankide, euskararekin inongo harremanik ez zutenak, gaur egun ondo moldatzen direla eta oso harro daudela.

Zer eskatzen diozue etorkizunean Bai Euskarari Elkarteari?

Gasteizen kalitatezko zerbitzua jasotzea euskaraz ere jasotzea da. Eta Bai Euskarari Elkarteari eskatzen diot aktibatze euskararen erabilera sustatzeko kanpaina bat. Konpromiso gehiago hartu behar dute merkatarien elkarteek, administrazioek, komertzioek... Guztiek hizkuntzaren erabilera normaltasunez, naturaltasunez, bi eletara egin beharko genuke. Ezagutza eman behar du Bai Euskararik euskara inportantea dela eta euskal denda eta komertzioen sarea inportantea dela Gasteizen.

Ane eta Naroa Amenabar Errota Hortz Klinika



ERROTA Hortz klinikako dentista eta higienista dira hurrenez hurren Ane eta Naroa ahizpak. 2015ean hasi zen Ane klinikari, Inma Esnaola izebak animatuta, eta ondoren hasi zen Naroa. Julian de Apraiz kalean dute Hortz Klinika, Gasteizko Alde Zaharretik oso gertu.

Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako enpresarioen (AENKOMER) aitortza jaso berri duzue, zein balorazio egiten duzue?

Guk naturaltasun osoz egiten dugu euskaraz lan eta naturaltasun horrek jaso du saria. Egia da aitortza honek gure bidea indartzen duela. Gauzak ondo egiten ari gara, kalitateko zerbitzua eskaintzea da gure helburua, eta kalitatearen parametroetan euskararen erabilerak garrantzi handia du.

Nola baloratzen dute gasteiztarrek euskararen alde egiten

duzuen ahalegina?

Argi dago horrelako sariak indarra ematen digutela eta gure bezero eta ezagunek baloratzen dutela. Guk euskararen erabilerari oso barneratuta daukagu gure egunerokotasunean eta agian ez gara konturatzen, baina jendeak baloratzen du, dudarik gabe.

Zer da euskara zuentzat?

Euskara gure hizkuntza da. Euskaraz lan egiteak motibatzen gaitu eta gure ingurukoak motibatzen ere saiatzen gara. Urte hauek guztietan konturatu gara badirela Gasteizen euskaldun asko, itzalean, euskara egunerokotasunean erabiltzen ez dutenak, baina jakin badakitenak. Horiek askotan ez dute espero Hortz Klinika batean euskaraz aritzeko aukera izatea eta poztu dira. Guk lehenengo hitza, beti euskaraz.

Zein balio eransten dio euskarak zuen zerbitzuari?

Euskara gehigarri bat da, zerbitzuaren kalitatea hobetzen du, dudarik gabe. Puntako tresneria, ortodontziak egiteko gailu bikainak... hori guztia eskertzen du bezeroak, baina euskara ere kalitateko zerbitzu horren barne dago.

Bai Euskarari Ziurtagiria ere baduzue, ezta?

Bai, badugu. Hortz Klinikari lanean ari garen guztiok ez dakigu euskaraz, baina saiatzen gara gure komunikazio guztietan erabiltzen.

Eta euskarak zer eskaintzen dizue?

Euskaraz lan egiteak askotariko bezeroak artatzeko aukera eskaintzen digu. Bezero perfil mota asko daude eta euskaldunak zerbitzua euskaraz jaso nahi izaten du. Horrexegatik, euskaldun asko dator gurera. Oro har, gure arloa erabat eralduna da. Unibertsitatea, literatura guztia, berrikuntzaren esparrua, kliniken eta zerbitzuen arloak kontuan hartuta erdara da nagusi.

Bai Euskarari Elkarteari zer eskatzen diozue?

Gasteizko enpresa arlokoei, merkatariei, zerbitzuen arloan dihardutenei esango nieke euskaraz egin dezaketela lan eta Bai Euskarari Elkarteari hori erraztu dezake. Euskaldunen eskubiak errespetatu behar ditugu. Ziur gara merkataria asko daudela euskaraz moldatuko liratekeenak eta horiei guztiei aholkatuko genieke saiatzeko eta euskara ere erabiltzeko.

**GURE KULTURAREN
KOLORE GUZTIAK**

LEITZARAN
grafikak

Gudarien Hiribidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tf: 943 30 35 10
www.leitzaran.eus
grafikak@leitzaran.eus

Abian da Lansarean.eus lan-atari berritua

Euskal profesionalentzat, lan bila ari direnentzat eta lana eskaintzen duten enpresentzat erreferentziatzeko lan-ataria da lansarean.eus eta, etorkizunean, zerbitzu hobea eskaintzeko eta euskaraz lan egiteko aukerak errazteko berrikuntza ugari barneratu ditu.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkar-teak lansarean.eus euskarazko lan-atari berritua aurkeztu zuen maiatzaren hasieran, Langilearen Nazioarteko Egunaren harira. Eus-kara hutsez dagoen lan-atari bakarra da Lansarean, lana euskaraz bilatu, eskaini eta euskaraz lan egin nahi duen komunitatearen eskura da- goen erreminta. **“Lehen aukera eus- kara, lan aukera euskaraz”** lelopean jarritako kanpainaren ondorioz, he- dapan nabarmena izan du atariak eta lan eskaintzak zein erabiltzaileak gora egin dute.

Lansarean bi publiko hauei dago zuzendua: alde batetik, enpresa, saltoki eta era guztietako entitateei, lan-eskaintzak zabaldu eta hautake- ta-prozesuak arinago kudea ditzate- ni; eta, bestetik, lan bila ari diren pertsonen, euskarazko eskaintza profesionalak modu pertsonalizatu batean jaso eta hobekien egokitzen

zaien lana topa dezaten.

Iparra argi dute Bai Euskarari Elkartean; orain dela pare bat hi- labete Rober Gutiérrezek horrela nabarmendu zuen, arlo-sozioeko- nomikoan euskararen aldeko urra- tsak ematearen premia agerian utziz: “euskara eremu sozio-ekono- mikoan txertatzea eta erabiltzea fun- tsezkoa da egunerokoan normalta- sunez aritzeko eta hizkuntzaren bizi- berritzerako. Lan munduan euskara sustatzeko urratsak ematen ari dira, baina erdara da nagusi oraindik ere enpresa eta lantoki gehienetan. Bes- talde, hezkuntza-arloa euskalduntze- ko egindako inbertsioak ez du segi- darik izan arlo sozio-ekonomikoan. Gero eta gehiago dira euskaraz ikasi duten eta trebatu diren per- sonak, belaunaldi berriak prest dau- de euskaraz lan egiteko, baina, lan munduak horretarako aukera gutxi ematen die. Lan arloan euskaraz

LANsarean.EUS
LEHEN AUKERA, EUSKARA. LAN AUKERA, EUSKARAZ.

Iraitz Perez de Goldarazena - Oreak IT

“

Konturatu ginen Lansarean ataria eraginkorra zela eta curriculum ugari jasotzen genituela.

normaltasunez aritzeko baliabideak sortu eta garatu behar dira. Euska- raz lan egin ahal izateko ezinbesteko baldintza baita, pertsonak eta espa- zioak euskararekin betetzeaz gain, baliabideak eta tresnak ere euskaraz egotea eta horiek baliatzea”.

Lansarean.eus da horren adibide argia, enpresa edo-eta profesional euskaldunak ezagutzeko aukerak errazten jarraitzeko asmoz eskaini- tako baliabidea. Bi urte igaro ondo- ren eta milaka lan-eskaintza jaso eta kudeatu ondoren, diseinu eta fun- tzionalitate berriak erantsi dizkiote enpresen eta hautagaien beharrei modu eraginkor eta pertsonalizatu batean erantzuteko. Berritasunen artean, nabarmenak dira, alde bate- tik, diseinuaren berritzea, eta, beste-

KULTURA
EUSKARA
SUSTATZEN

elkar






egin du bere ekarpena hautagai moduan eta honakoa nabarmendu du: "Nik betidanik argi izan dut nire lan ibilbidea ere euskaraz garatu nahi nuela eta horretarako lansarean.eus atari ezinbestekoa iruditzen zait"; horrekin batera, Noemi Garcia de Iturrospek, Oreka IT-ko web garatzaileak, aitortu du ikasten zegoen bitartean bere lehenengo lana lansarean.

"badakigu Lansarean.eus-en bilatzen duten hori erraz topatuko dugula".

Erabiltzaileen bizipen eta iritziak jasota, Bai Euskarari Elkartek adin eta profil ezberdinetako pertsonak lan aukera euskaraz hautatzera animatu nahi ditu, Lansarean.eus adibide errealean bidez ibilbide profesionalari ekiteko tresna era-



Zure euskarazko formazio eskaintza lansarean.eus lan-atariaren bidez zabaltu nahi duzu?

Bidali proposamena **info@lansarean.eus** helbidera eta Bai Euskarari Elkartetik zabaltzen lagunduko dizugu.

tik, lan-abisuak, lanbide orientazioa, hautagaitzaren jarraipen aukera, formazio eskaintza... bezalako aukera edo-eta zerbitzuak.

Gainera, webgunearen aro berriari hasiera emateko, erabiltzaileen iritzi eta esperientziak jaso nahi izan dira bideo baten bidez, Lansarean ataria bezalako baliabideei esker "lehen aukera, euskara; lan aukera euskaraz" posible dela erakusteko. Ikerlaneko, Oreka IT-ko, Arteman Komunikazioko, Kide Aholkularitzako eta Berria Euskarazko Komunikazio Taldeko erabiltzaile eta profesionalak dira bideoaren protagonistak.

Besteak beste, Ane Fernandezek, Berria Taldeko marketin teknikariak,

eus atariaren bitartez aurkitu zuela.

Enpresa arloko ordezkarien iritziak ere jaso dira; adibidez, Ikerlan Ikerketa Zentroko Nerea Burutaranek, Pertsonen Kudeaketako koordinatzaileak, azpimarratu du "pertsona trebatuak erakartzeko tresna bikaina dela"; Iraitz Perez de Goldarazena, Oreka IT-ko zuzendari nagusia konturatu zen "Lansarean oso atari eraginkorra zela eta kurrikulum ugari jasotzen genituela" eta Arantzazu Lagunillak, Arteman Komunikazioko zuzendariak, azaldu du euren helburuetako bat pertsonen garapena eta lanpostuen sustapena izanik,

ginkorra dela erakutsiz. Ez dago aitzakiarik. Zure enpresaren eskaintzetan euskara aintzat hartzen baduzu, lansarean.eus. Zure ibilbide profesionala euskaraz eraikitzea erabaki baduzu... badakizu, lansarean.eus.



lansarean.eus aurkezpen-bideoa



www.enpresarean.eus

/enpresarean

@enpresarean



Enpresa eta profesional sarea, euskaraz

- Enpresa munduko abisteak
- Elkarlanean komunitatea
- Azokari buruzko informazioa



Lan eta bizi euskaraz

Garbiñe Aranburu

LABeko idazkari nagusia

“Euskara bizimodu jasangarriaren, demokraziaren eta askatasunaren alde”

LAB sindikatuak garai berri bati hasiera eman dio. Garbiñe Aranburuk hartu du idazkari nagusiaren lekukoa, eredia berritu eta esparru politikoan, sozialean zein sindikalean eragiteko ilusioarekin. Kontraboterea, feminismoa, euskal sozialismoa, elkarlana eta euskara dira garaia-
ren gakoetako batzuk.

Garbiñe Aranburu, LABeko idazkari nagusia. Naturaltasunez sinatzen duzu jada?

Errespetuz eta ilusioz ekin diot etapa berriari, eta prozesua bera naturaltasunez bizi dut. Ez gara hutsetik abiatzen, etxeko lanak eginda iritsi gara Biltzar Nagusira. Aurretik hasitako bideari jarraipen ematea dagokigu guri. Sindikatuak oinarri sendoak ditu eta norabide egokia, lekukoa hartu eta lanean jarraitzeko.

Aldaketak zailak eta bat-batekoak dira batzuetan. Kasu honetan, LABeko ordezkarien % 92ak egin zuen zure alde. Zeintzuk dira idazkari nagusia izatearen motibazio nagusiak?

Azken urteak zailak izan dira sindikatuarentzat aldaketez josiak. Krisi garaia, gure agenda hankaz gora jarri zuen eta egoerari erantzutea izan da lehentasuna.

Erantzun eraginkor bat ematen saiatu gara eta horrekin lotzen dugu langileen aldetik jasotako atxikimendua; sindikatuak hazkunde fasean dago, ordezkaritza gero eta zabalagoa dugu Euskal Herri osoan. LAB osasuntsu eta barne kohesio handiarekin iritsi da bere

9. Biltzar Nagusira. Horri erantzungo liokete bai aurreko zuzendaritzaren ku-
deaketak izaniko atxikimenduak, baita zuzendaritza berriari emaniko babesak ere.

Prekariatatearen aroari aurre egiteko eredu sindikal eraginkorra behar dugu eta helburu horrekin, sindikalgintza eredia birpentsatzeko gogoeta prozesu oso bat egin dugu. Gaur esan dezakegu garai berriari oinarri feministak izango dituen LAB indartsu eta gaurkotu batetik egin ahal izango diogula aurre.

Kontrabotere sindikalgintza aldarrikatzen dugu, ezinbestekoa baita lan munduan eta jendartean aldaketak eragiteko. Aldaketaren bidean, azken urteetan lan handia egin dugu Euskal Herrian burujabetza prozesua abiatzeko baldintzak sortzeko. Esparru politikoan, sozialean zein sindikalean asko dugu egiteko eta asko irabazteko.

Rafa Díez Usabiaga eta Ainhoa Etxaide. Zuretzat ereduak al dira?

Harro gaude LABen Rafa eta Ainhoaren tamainako militanteak izateaz, eta haiek egindako ekarpenaz. Niretzat oso emankorra izan da lehenik Rafarekin aritu izana eta ondoren Ainhoare-

kin, eskuz esku.

Garai berri bati begira jarri garen honetan ere, LAB sindikatu soziopolitiko bat dela aldarrikatzen jarraitzen dugu, aldaketa soziala lortzeko politikak aldaraztea ezinbestekoa baita. Erronka berriak bai, eredu sindikal berritua ere bai, gure balioak gaurkotzeari bai, baina sindikatu honen izaerari eutsiz egingo dugu bidea.

Kongresuaren izenburua: ‘LAB 4.0 Gure Garaia’. Nolakoa da garai hori? Gurea, zeinena?

40 urteko ibilbidea du LABek. Sindikatu bere 4. hamarkadan, 4. fasean sartu da eta orain garai hori irudikatzea dagokigu. Ardatz nagusiak marraztu ditugu, lana eta kapitalaren arteko talkari dimentsio berria eman diogu, bizimodua eta kapitalaren arteko talkan kokatuz, bizimoduaren erabateko prekarizazioari aurre egitea da lehentasuna.

Nahi dugu euskal langileon garaia izatea, euskal sindikalismoaren garaia, Euskal Herriaren garaia, Euskal Estatuaren garaia, sozialismoaren garaia.

Benetako alternatibak eraikitzeko garaia da eta apustu argi bat dugu: euskal sozialismoa eraikitzea; Euskal Estatuak da eraikuntza horretarako tresna, eta

tzak ikusiko dira lan munduan, esparru sozialean eta politikoan.

Eta gainontzeko sindikatuakiko ekintza sindikala?

Euskal Herrian bi eredu sindikal ezberdin ditugu. Sindikatu abertzaleen eredu batetik, eta CCOO eta UGTrena, bestetik. Gehiengo sindikalaren esparrua da gure aliantza eremu naturala. CCOO eta UGTren ereduarekin elkarlanean aukera gutxi izango da hemen gauza bat esan eta Madrilen kontrakoa egiten jarraitzen duten bitartean.

Langileriaren egoerari erreparatuz, hazkunde ekonomikoa, langabezia zifrak, lanbideratze tasa... egoera sozioekonomikoa, orokorrean, hoberuntz doala esaten dute. Zein da zuen pertzepzioa?

Hazkunde fasea iragarri dute, baina desberdintasun sozial gero eta handiagoen gainean egingo da. Aberastasunaren banaketarik ez dago, pobrezia gero eta handiagoa da; gero eta langile gehiagok, enplegua izanagatik ere, prestazio sozialen beharra dute.

Hazkundearekin gertatzen da hitzarmenenik gertatzen den gauza bera, edozein hazkunde ez dela ona langileontzat. Enplegu berririk gabe, prekaritate gero eta handiagoarekin, soldak etengabe erasotuz, erabat askiezen pentsio sistema bat mantenduz, babes sozial nahikorik gabe, desoreka eta desberdintasunak gero eta handiagoak izango dira. Botere ekonomikoak eta politikoak egiten duten hazkundearen apologiarekin kontuz ibili beharra dago.

Administrazioetako ordezkariak aurrean izango bazenitu, zein hiru gauza eskatuko zenizkieke?

Bereziki Jaurilaritzari zuzenduko nioke mezua. Lehenik, langileon kontrako erabakiak hartzeari uzteko, murrizketa eta politika antisozialekin amaitzeko eta gaizki deituriko elkarriketa sozialeko mahaia desagiteko.

Bigarrenik, autogobenuaz hitz egiten duten honetan eskatuko nieke Lan Harremanetarako eta Babes Soziale-rako Euskal Esparruaren alde urratsak



hor kokatzen ditugu aldebakarreko burujabetza prozesua sustatzearen beharra eta garrantzia, hor, gaurko eredu erroto aldatzeko aukera.

Zeintzuk dira une honetan sindikatuaren oinarri nagusiak. Garai honetan zeintzuk dira erronkarik nabarmenenak?

Kapitalismoak gure bizimoduaren jasagarritasuna du jo-puntuan, eta aurre egin behar diogu, mobilizazio lerro gero eta indartsuago batekin eta eragile sozial eta sindikalen arteko aliantzen bitartez. Bizimoduaren jasagarritasuna lanaren aitortzarekin ere lotuta dago: lana bere osotasunean aitortu behar da, produktiboa zein erreproduktiboa.

Langile kolektibo ezberdinei erantzun-go dien praktika sindikal bat garatu behar dugu datoen urteetan, hortik

etorriko baita hain beharrezkoa dugun langile-klasearen berrosaketa. Sindikatuak gai izan behar du ekintza sindikal eta sozial integral bat garatzeko, lan baldintzak defendatzeaz gain, bizitzaren prekarizazioaren kontra aritu eta bizimodu duinaren aldeko borroka erdiguinean jartzeko.

Erronka horietan aliantzak aipatu izan dituzue. Konkretuki, ELA sindikatuarekin harreman naturala sustatzen ari zarete, ekintza sindikal bateratua lortzeko bidean.

Elkarlana beharrezkoa da eta horretarako baldintza jakin batzuk sortzen ari gara. Ibilbide ezberdinak ditugu, bi proiektu sindikal ezberdin. Hori horrela da, baina badakigu elkarlanaren bideetik gure kontrabotere eta konfrontazio gaitasuna biderkatu egiten dela; adostasunak eraikitzeke gai bagara, emai-

emateko benetako konpromisoak har ditzatela. Ezin da autogobernuaz hitz egin jendarte justu bat eraikitzeke oinarrikoak diren lan harremanak eta babes sozialaren sistema eraginkorra eraikitzeke borondaterik edota ahalmenik gabe.

Hirugarrena, baina ez horregatik garrantzia gutxiagorekin, euskal gatazkarren konponbidearen alde bustitzeko eskatuko nieke.

“LAB EUSKARAZ”

Kongresu honetarako helburuetako bat izan zen “zerbitzua euskaraz” maila eskuratzea. Zorionak, lortu duzue. Zer suposatu du aurrerapauso honek sindikatuarentzat?

Ibilbide baten aitortza da eta, lan munduari begira, LABek egiten duen aitzindaritza lana aintzat hartzeko modu bat.

Garaiko gainerako sindikatu guztiak bezala, LAB erdaraz eraiki zen eta sindikatua euskalduntzea eraldaketa prozesu gisa ulertu zen hasieratik. Erabakia hartu, bitartekoak jarri eta prozesu planifikatua eta adostua egin dugu.

Bidean urrats garrantzitsua, izan da Bai Euskarari Ziurtagiriaren “zerbitzua euskaraz” maila eskuratzea. Horri lortuta, gure helburua sindikatuaren funtzionamendua euskalduntzea da orain.

Azken hamarkadetan egin den talde lanari esker eta gure militanteek euskararekiko duten konpromisoari esker, oso gertu gaude hurrengo mailara salto egiteko.

Urte hauetan zein pauso eman dituzue sindikatuan euskara txertatzeko? eta zertan lagundu dizue Bai Euskarari Elkarteak?

LABek egitasmo estrategiko propioa du eta horren baitan barne euskalduntzerako zein lan munduaren euskalduntzerako ildoak egituratzen ditugu. Azken urteetan erabilerran jarri dugu indarra eta urrats asko eman dira, hiru azpimarratuko nituzke: egoitza nagusi guztietan euskararen erabilera sustatzeko lan taldeak iraunkortzea, ahozko erabileraren neurketak egitea zein neurri zuzentzaileak martxan jartzea eta aholkularitza juridikoa euskalduntzea. Azken hori



gakoa izan da “zerbitzua euskaraz” maila eskuratzeko.

Bai Euskarari prozesu horretan bidaide izan da 2005etik eta langileontzat bereziki interesgarriak dira “enpresetako autodiagnosia” egiteko sortu duen aplikazioa edota praktika egokiak bildu izana. Era berean, enpresari, instituzio edota esparru sozioekonomikoan egiten duen sustapena eta sindikatuoi eragile aktibo gisa egiten digun aitortza ezinbestekoak dira.

Bai Euskarari zuzendaritza taldean dago LAB, euskal langileen ahotsa presente egotea beharrezkoa baita. Euskara eta arlo profesionala: nolakoa da egoera?

LABek Bai Euskarari Elkartearen zuzendaritzan parte hartzen du langileoi begirako interbentzio lerro bat antolatzeke helburuarekin eta elkarlanean egin daitezkeen ekimenak bultzatzeko.

Gaur egun euskararen normalizazioak duen hutsunerik nagusienetarikoa eremu sozioekonomikoa da. Diskurtsoetan euskara kohesiorako elementu gisa aurkezten da, eta gatazkek ekiditeko, politikatik at kokatu behar dela azpimarratzen da. Errealitateak, ordea, lan munduaren euskalduntzea konfrontazio parametroetan kokatzera garamatza. Euskarak ez du tokirik patronalak eta hainbat instituziok sustatzen dituzten politika neoliberaletan. Euskara bizimodu jasangarriaren, demokraziaren, askatasunaren alde kokatzen dugu. Lan munduaren

euskalduntzeak politika eraginkorrak behar ditu, ez politika gutxiago.

Langileok ezinbestekoak gara lan munduaren euskalduntzearen aldeko dinamika pizturik mantentzeko. Hala, urratsak eman ditugu langileon hizkuntza eskubideak lan eskubideen baitan kokatzeko, eskubideok ekintza sindikalaren bidez borrokatzen eta aliantza berriak eraikiz. Urola Kosta eskualdean Kontseilua, ELA eta LAB sindikatuon artean garatzen ari garen egitasmo pilotua aitzindaria da horretan.

Belaunaldi berriak dira etorkizuna. Gazteek euskaraz lan egiteko prest al daude? Aukerarik eskaintzen zaie?

Zama handiegia jartzen da gazte edo langileongan. Norbanakoa euskaraz aritzeko prest ote dagoen galdetu aurretik, euskaraz lan egin eta bizitzeko ditugun baldintzak aztertu beharko genituzke eta politika eragingarriak aplikatu. Bide horretan, aztertu beharko genuke indarrean dauden hizkuntza ereduak belaunaldi berriak euskalduntzen ote dituzten eskolaren bidez, lanbidea euskaraz ikasteko edo garatzeko ditugun aukerak zein oztopoak aztertu, etengabeko formazio eskaintza errebisatu... Ezintasun hori areagotu egiten da lan munduan, oro har, euskaraz lan egiteko baldintzarik ez baitugu. Zerbitzua euskaraz bermatzearekin edota euskara ezagutzearekin ez gara konformatzen. Langileok euskaraz lan egin eta euskaraz bizi nahi dugu, gure eskubidea delako eta nahi dugulako.

Gizartea eraldatzeko asmoz, enpresek hitza eta aurrea hartzen dutenean

Bai Euskarari Elkartek antolatzen eta sustatzen duen Enpresarean Foroan Raul Garciak, ULMAko presidenteak, esku hartu zuen 'Kooperatibagintza, eraldaketa soziala eta formula berriak' lelopean eskainitako hitzaldiarekin.

2017an IPDK fondoa (hornitu aurreko eta ekarpenetarako interesen ordainketa egin osteko legezko soberakina) 400.000 euro ingurukoa izango badu ere, eta eraldaketa sozialera ehuneko handia bideratzen bada ere, egoera normal batean ULMA Taldeak bi milioi euro inguruko fondoa izan dezake eraldaketa

sozialean eragiteko. Raul Garciak adierazi zuen gizartean egokiago eragiteko formula berriak aztertzen ari direla eta etorkizunean fondo hori guztia kudeatuko dutela ULMA Fundaziotik.

Enpresarean Foroaren baitan eskaini zuen hitzaldia, ULMA Taldearen presidentek, Oñatin. Bai Euskarari elkarteak

antolatu eta sustatutzen du Enpresarean Foroa, Rober Gutiérrez Bai Euskarariko zuzendariaren esanetan, "arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko eta, aldi berean, euskaraz lan egiten duten profesionalen eta enpresa zein erakudeen artean dinamizak bideratzeko".

ULMA fundazioa

4.500 langile inguru ditu mundu guztian zehar banatuta ULMA Korporazioak, horietako asko Oñatin bertan. Bai Euskal Herrian zein enpresak dituzten gainerako tokietan azken urteotan eraldaketa sozialean nola eragin eztabaidatzen aritu dira, ondo bereiztu nahi baitituzte arlo soziala zein arlo enpresariala. Horren haritik, Enpresarean Foroan Raul Garciak adierazi zuen etorkizunean era aktiboagoan inplikatu direla gizarte proiektuekin, "ez soilik proiektuei dirua emanez, gure pertsonak inplikatz ere". "Aspalditik garapen bidean dauden herrialdeak laguntzen ditugu Mundukideren bitartez, beti ere dirua emanez. Aurrerantzean, gure pertsonak era aktiboan parte-hartuko dute euren proiektuetan. Esate baterako, aurtengo udan ULMAko hiru langilek proiektu horietan parte hartuko dute, bertatik bertara".

Aurten, fondoen banaketari dagokionez, % 30 kooperatibagintza arlora bideratuko du ULMAk, % 23 hezkuntzara, ongizate eta osasun proiektuetara, % 9 gizarteratzera, % 9 ingurumen proiektuetara, % 8 euskara arlora, % 5 kirolaren esparrura eta % 3 kultura egitasmoetara.

Fondoak banatzeko etorkizuneko irizpideak

Raul Garciak kooperatibaren eredua defendatu zuen, "ez ditugulako soilik helburu enpresarialak, guk konpromiso bat eta ardura bat dugu gure inguruarekin. Azken finean, zentzua eman behar diogu kooperatibista izateari".

ULMA Fundazioak lau arlotan banatuko du bere funtsa: marko kooperatiboa, gizakien beharrak, hurbiltasun geografikoa eta eragin bolumena. Arlo bakoitzean erreferentziatzeko edo lehentasuneko kolaboratzaile bat izango dute eta haien bitartez bideratuko dute fondoa. Diru-laguntzak emango dizkiete irabazi asmorik gabeko erakundeei, gizartearen ongizatea helburu dutenei, ULMA Taldearekin zerikusia izan dezaketen erakunde edo proiektuei eta erlijio edo politika kutsurik ez dutenei.



Euskara eta eraldaketa soziala

Euskararen sustapena erantzukizun sozialaren arloan integratu du ULMAk. Hala, identitatearekin eta ULMAren balioekin (lankidetzaz, pataidetzaz, berrikuntza eta lehiakortasuna) bateratu du. Euskara planak 2004tik daude abian taldean eta gaur egun korporazioak bere hizkuntza politika propioa du, helburu eta estrategia konkretuekin, eta euskara planak lantoki guztietan ezarri ditu.

Enpresarean foroak bi ordu inguruko iraupena izan zuen eta, besteak beste, honakoak batu zituen: Fagor Industrial, Fagor Arrasate, EMUN, CodeSyntax, LagunAro, ULMA, Bai Euskarari, Mondragon Unibertsitatea, Mutualia, Arteman Komunikazioa, Oñatiko Udala, Bagara, MONDRAGON Korporazioa eta Spriko ordezkariak. Bai Euskarari Elkarteko zuzendariaren esanetan, "pozgarria izan da ikustea enpresarean foroak interesa pizten duela eta euskarak arlo sozioekonomikoan duen presentzia ere gero eta handiagoa dela".

www.enpresarean.eus



#BaiPraktikaEgokia

Euskaraz lan egin nahi duzu eta ez dakizu nondik hasi?
Hemen dituzu 20 jarraibide

1

Enpresetan zerbitzua eta lana euskaraz izatera iristeko ibilbidea zehaztea. Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez

2

Zuzendaritzaren eta langileen konpromisoa, euskaraz lan egiteko edota bezeroei euskarazko zerbitzua eskaintzeko

3

Euskaraz lan egiteko irizpideak eta baliabideak adostea, ezartzea eta komunikatzea; eta horien segimendua egitea

4

Enpresek bermatzea langile guztiek lanpostua garatzeko hizkuntza gaitasuna izango dutela, ahoz zein idatziz

5

Kontratazioetan, hizkuntzaren irizpidea aintzat hartzea

6

Lanerako baliabideak (softwareak, dokumentazioak...) euskaraz lan egiteko aukera bermatzea

7

Langileentzako elementuak euskaraz egotea: lan hitzarmena, kontratuak, nominak, etab.

8

Bezeroak euskaraz artatuak izatea: aurrez aurre, telefonoz eta on-line

9

Lehenengo hitzetik euskaraz, bezeroei euskaraz egiteko aukera erazteko

10

Euskal hiztuna bisualki identifikatzea, bereizgarriren bat erabiliz

11

Kontratazioetako zerbitzuak pertsonak ere euskaraz aritzeko gaitasuna izatea

12

Kartel, errotulu eta abarretan euskara lehenestea

13

Etiketak eta bilgarriak euskaraz ere egotea, bezeroei eskaintzako informazioa baita

14

Publizitateari dagokionez, elementu guztiak euskaraz egotea eta euskaraz sortzea

15

Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei zuzendutako elementuak euskaraz egotea: menuak, fakturak, etab.

16

Megafonia bidezko informazio guztiak euskaraz izatea

17

Interneteko interfazeak zein edukiak euskaraz izatea. EUS domeinua erabiltzea

18

Makinetan ageri diren testuak eta etiketak euskaraz egotea: salmentak, makinak, kutxazainak, etab.

19

Enpresen hornitzaileak euskaraz aritzeko gaitasuna izatea: abokatuak, telemarketing zerbitzua, garraio enpresa, etab.

20

Administrazioetako ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz hutsaz izatea

eskuratu
zure posterra

www.baieuskarari.eus
atarian

3 eredu aukeran

EUS



EUS
ES



EUS
FR



bai
euskarari

Ziurtagiriaren
Elkartea

baieuskarari.eus



Lan eta bizi euskaraz

Bai Euskarari Elkartek eskaintzen du



LANsarean
bilalan

Ziurtagiria

Euskara erabili eta sustatzen duten enpresa, saltoki eta entitateak identifikatzeko ikurra.

Enpresarean

Euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko elkarlana sustatzeko sarea.

Lansarean

Enpresa edo-eta profesional euskaldunak ezagutzeko aukera errazten duen lan-ataria.

baieuskarari.eus

enpresarean.eus

lansarean.eus